ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 30a, ostirala • 125 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

21/2026 Foru Araua, urriaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko edukiera handiko bideak erabiltzeagatik ordaintzeko sistema ezartzea arautzen duena

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2026ko urriaren 28ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "21/2026 Foru Araua, urriaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko edukiera handiko bideak erabiltzeagatik ordaintzeko sistema ezartzea arautzen duena", aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 28a

Diputatu Nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

21/2026 FORU ARAUA, URRIAREN 28KOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO EDUKIERA HANDIKO BIDEAK ERABILTZEAGATIK ORDAINTZEKO SISTEMA EZARTZEA ARAUTZEN DUENA

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua. Arauaren xedea.

2. artikulua. Kanonaren izaera juridikoa.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

4. artikulua. Kanonaren sortzapena.

5. artikulua. Ordaindu behar duten ibilgailuak.

6. artikulua. Salbuespenak.

7. artikulua. Berariazko tratamenduak tarteen arabera.

8. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

II. KAPITULUA. SISTEMAREN TARIFEN ERREGULAZIOA

9. artikulua. Kanonaren zenbatekoa zehazteko printzipio orokorrak.

10. artikulua. Kanonaren zenbatekoa eta eguneratzeak.

11. artikulua. Hobariak.

12. artikulua. Ordainbideak.

13. artikulua. Kanonaren kudeaketa, ordainarazpena eta bilketa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

14. artikulua. Kanona ez ordaintzea eta errekarguak.

15. artikulua. Hartutako diru sarreren helburua.

III. KAPITULUA. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

16. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua.

17. artikulua. Bildutako datu pertsonalak.

18. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua.

19. artikulua. Zilegitasun titulua.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Araua aldatzea.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. AP-1 autobideko Vitoria-Gasteiz-Eibar tarteko tarifak.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. AP-68 autobidearen araubide berezia.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Europar Batasunari jakinarazpenak egitea.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Lortutako diru-sarreren xedea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA. Eskumen titulua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. Erregelamendu garapena.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA. Europako araudiaren aplikazioa kargari dagokionez.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA. Indarrean sartzea.

ZIOEN AZALPENA (HITZAURREA)

I

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.34 artikuluan eta Autonomia erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foruzko jardute erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a) 8 artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru organoei dagokie errepideak eta bideak planifikatu, proiektatu, eraiki, zaindu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzea.

Arabako Lurralde Historikoan, eskumen hori Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauan ere jasota dago. Foru arau horren 8. artikuluak Arabako Foru Aldundiari esleitzen dio Arabako errepideen plangintza, proiektua, eraikuntza, aldaketa, kontserbazioa, finantzaketa, erabilera eta ustiapenaren gaineko eskumena.

Eskumen horiek baliatuz, Arabako Foru Aldundiak foru titulartasuneko bide azpiegituren kontserbazio, mantentze, ustiapen eta finantzaketa egokia bermatu behar du, sarearen segurtasun, zerbitzuaren kalitate eta funtzionaltasun maila egokiak ziurtatuz. Betekizun hori bereziki garrantzitsua da edukiera handiko bideei dagokienez, zirkulazio handia, ibilbide luzekoa eta salgaien garraioa jasaten baitute, eta inbertitzeko eta mantentzeko ahalegin handia eskatzen baitute.

II

Arabako Lurralde Historikoak kokapen estrategikoa du penintsulako iparraldea, Ebroko harana eta Europako gainerako lekuetarako sarbideak lotzeko bide korridore nagusien barruan. Azpiegitura batzuek, hala nola AP-68, AP-1, A-1 errepideek eta edukiera edo funtzionaltasun handiko zenbait errepide nazionalek lurraldeen arteko eta nazioarteko zirkulazio esanguratsuak jasaten dituzte, eta ibilgailu astunak nahiz salgaien garraioan jarduten dutenak oso ohikoak dira gure errepideetan.

Erabileraren intentsitate hori dela eta, errepideen sarea kontserbatzeko, mantentzeko, modernizatzeko eta ustiatzeko beharrak oso handiak dira, batez ere, edukiera handiko bideetan; izan ere, haien ezaugarri teknikoak, zirkulazio bolumena eta mugikortasun sistemaren barruko eginkizunak direla eta, azpiegituretan erabiltzen diren baliabide publikoen zati biziki nabarmena kontsumitzen dute.

Zehazki, AP 68 autobidea azpiegitura estrategikoa da Arabako Lurralde Historikoan, alde batetik, Ebroko korridorearekiko lotura delako, eta Kantauriko ardatzarekiko lotura ere, eta bestetik, Estatuko nahiz Europako komunikazio ibilbiderik behinena delako. Arabako Lurralde Historikotik igarotzen den AP 68 autobidearen tartea lurralde horretara eskualdatu zen transferentzia-tresna egokiak erabiliz. Tarteak 55,2 kilometroko luzera dauka, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren mugatik Arabako hegoaldeko muturrean dagoen Burgosko probintziaren mugaraino doa (bertan jarraipena du Errioxarantz doan korridorearekin). Tarte horrek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera dauka eraginkortasuna.

AP 68 autobidearen emakida araubidea laster amaituko denez, beharrezkoa da azpiegitura horren kudeaketa eta finantzaketa eredu propioa zehaztea, haren jarraitutasun operatiboa eta kontserbazio egokia nahiz sistemaren finantza iraunkortasuna bermatzeko, behin autobia bihurtuta. Horrenbestez, AP 68 lehentasunezko bidea da Arabako Lurralde Historikoan erabiltzeagatik ordaintzeko sistema bat ezartzeko, egungo ordainpeko autobidearen logikari eutsiz, baina Arabako Foru Aldundiari dagokion eskumen, lege, teknika eta ekonomia esparru berrira egokituta.

III

Foru arau honek Arabako Lurralde Historikoaren ordenamendu juridikoan txertatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko ekainaren 17ko 1999/62/EE Zuzentarauaren transposizioa, azpiegitura jakin batzuk erabiltzeagatik salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunei kargak aplikatzeari buruzkoa, 2006/38/EE eta 2011/76/EB zuzentarauek eta, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022ko otsailaren 24ko 2022/362 (EB) Zuzentarauak egindako ondoz ondoko aldaketen ondoriozko idazketan. Azken zuzentarau horrek aplikazio eremua zabaltzen du, eta indartu egiten du ingurumen irizpideen integrazioa bide azpiegiturak erabiltzearen ondoriozko tarifetan.

Bide azpiegiturak erabiltzeagatik ordaintzeko sistemak ezartzea bat dator "erabiltzen duenak ordaindu behar du" eta "kutsatzen duenak ordaindu behar du" printzipioetan oinarritutako mugikortasun eta finantzaketa ereduak sustatzeko Europar Batasunak aplikatzen dituen politikekin. Zehazki, 1999/62/EE Zuzentarauak –aipatutako aldaketen bidez pixkanaka ematen joan den edukia kontuan hartuta– erabiltzaileen bidesariei eta tasei aplikatu beharreko esparru juridikoa ezartzen du, bai eta proportzionaltasunaren, gardentasunaren, diskriminaziorik ezaren eta azpiegitura kostuetara eta, hala badagokio, kanpo kostuetara egokitzearen printzipioak ere.

Esparru horrek aukera ematen du bidesariak eta tasak ezartzeko bide azpiegitura jakin batzuk erabiltzeagatik, betiere haien konfigurazioak Europar Batasuneko Zuzenbideak ezarritako eskakizunak errespetatzen baditu eta erabiltzaileen artean zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik sortzen ez badu. Era berean, Europako araudiak ingurumen irizpideak kontuan hartzeko aukera arautzen du, isuri kutsatzaileak eta zirkulazioari lotutako kanpoko beste kostu batzuk ere aintzat hartuta, 1999/62/EE Zuzentarauan eta haren aldaketetan ezarritako parametro eta mugekin bat etorriz.

Bereziki, foru arau honetan sartuta geratzen dira, alde batera utzi gabe 1999/62/EE Zuzentarautik eratorritako gainerako betebeharrak eta Europar Batasuneko zuzenbidearen aldaketen ondorioz beharrezkoak izan daitezkeen foru araudiaren ondorengo egokitzapenak. Zehazki, honako gai hauei buruzko aurreikuspenak sartu dira:

— Kanona azpiegituren benetako erabilerari lotutako karga gisa konfiguratzea. Kanonaren zenbatekoa zehazteko, besteak beste, egindako distantzia edo erabilitako tartea eta ibilgailuaren kategoria hartuko dira kontuan (1999/62/EE Zuzentarauaren 2. eta 7. artikuluak).

— Errepideak, bideak edo bide tarteak eta kanonari lotutako ibilgailu kategoriak mugatzea (1999/62/EE Zuzentarauaren 1., 2. eta 7. artikuluak, 1. apartatutik 3.era).

— Kanonaren zenbatekoa zehazteko eta eguneratzeko aplikatu beharreko printzipioak, hauexek barne sartzen direla: azpiegiturei egotz dakizkiekeen kostuak berreskuratzea, objektibotasuna, gardentasuna, proportzionaltasuna eta kontuan hartutako kostuen, kargatutako azpiegituren eta kanonari lotutako ibilgailu kategorien arteko elkarrekikotasuna (7 ter eta 7 sexies artikuluak eta 1999/62/EE Zuzentarauaren III. eranskina).

— Tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, bereziki erabiltzailearen nazionalitateagatik, garraio operadorea kokatuta dagoen estatuagatik, ibilgailuaren matrikulazio estatuagatik edo garraio eragiketaren jatorri edo helmugagatik (1999/62/EE Zuzentarauaren 7. artikuluko 5. apartatua).

— Salbuespenak eta hobariak ezartzeko aukera, bai eta tarte jakin batzuetarako tarifa murriztuak edo tratamendu espezifikoak ezartzeko aukera ere, baldin eta irizpide objektibo, garden, proportzional eta ez-diskriminatzaileen bidez justifikatuta badaude (1999/62/EE Zuzentarauaren 7. artikuluko 6. eta 9. apartatuak eta 7 decies artikulua).

— Ordainbideak eta kobrantza sistemaren funtzionamendua arautzea, kanonaren ordainketa errazteko, sistemaren irisgarritasuna bermatzeko eta zirkulazioaren arintasunaren nahasmenduak ahalik eta gehien murrizteko (1999/62/EE Zuzentarauaren 7 undecies artikulua).

— Ez-ordaintzeak kontrolatzeko eta kudeatzeko mekanismoak eta erabileraren ondoriozko ordainketa sistema benetan aplikatzen dela bermatzeko zehapen araubidea ezartzea (1999/62/EE Zuzentarauaren 9 bis artikulua).

— Lortutako diru sarrerak kanonaren menpeko azpiegiturei lotutako kostuak finantzatzera bideratzea, eta, behar horiei erantzun ondoren, garraio sektorearen onurara, bide sarea hobetzera, ingurumena babestera eta mugikortasun jasangarria sustatzera bideratutako jardueretara (1999/62/EE Zuzentarauaren 9. artikuluko 2. apartatua).

IV

Foru arau honetan arautzen den kanona ondare prestazio publikoa da, zerga ez bestelakoa. Horrelakoa izateko arrazoiak hauexek dira: batetik, zuzenean lotuta dago zenbait errepide, bide edo tarte erabiltzearekin; bestetik, beraren helburua da azpiegitura horiek kontserbatzeko, mantentzeko, ustiatzeko eta hobetzeko kostuak, kobrantza sistemaren eragiketek eragiten dituzten kostuak, eta haien teknologia egokitzeko kostuak finantzatzen laguntzea. Izaera hori bat dator beste foru lurralde batzuetan bide azpiegiturak erabiltzeagatik ordaintzeko ezarri diren sistemen kalifikazioarekin.

Foru arauan prestazioaren funtsezko elementuak ezartzen dira: izaera juridikoa, esparru objektiboa, ordaindu behar duten ibilgailuak, sortzapena, salbuespenak, kuantifikazio irizpideak, ordainbideak, kudeatzeko arauak eta ordaintzen ez denerako arauak, sarreren xedea, eta datu pertsonalen tratamendua.

Foru Gobernu Kontseiluak foru dekretua emango du zenbatekoak finkatzeko eta eguneratzeko. Aurrekoa ez da arau igortze hutsa, baizik eta erregelamendu garapenerako teknika, foru arauan ezartzen diren printzipioetan eta irizpideetan oinarritua. Hori bat dator Konstituzioaren 31.3 artikuluari buruzko doktrina konstituzionalarekin; izan ere, haren arabera, onargarria da lege arauak zergetakoak ez diren ondare prestazio publikoen zenbatekoak finkatzeko irizpideak ezartzea, zenbatekoak berak zuzenean finkatu beharrean.

V

Lurralde mugakideen esperientzia konparatuak agerian jartzen du bideak finantzatzeko tresna mota horiek finkatu egin direla. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabilera kanonak ezarri ditu edukiera handiko hainbat errepidetan, ibilgailuak gelditu gabe kobratzeko sistema dinamikoak erabiliz, eragindako azpiegiturak kontserbatzeko, ustiatzeko, mantentzeko eta hobetzeko diru sarrerak lortze aldera.

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunei lurralde historikoko errepide jakin batzuk erabiltzeagatik kanona kobratzeko foru arau espezifikoa onetsi du. Hala, kanona azpiegitura kostuak berreskuratzeko, sarearen finantza iraunkortasuna bermatzeko eta tarifei loturik dauden bideen kudeaketa egokia egiteko tresna gisa konfiguratu du.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitateak errepide jakin batzuen erabileraren gaineko kanona arautzen duen foru lege bat onetsi du, non kanon bat sortzen den edukiera handiko bide sareko azpiegituren erabilerari lotuta, eta kanon horren izaera juridikoa, lotutako bideak, sortzapena, zenbatekoa, ez ordaintzea eta datu pertsonalen tratamendua arautzen diren.

VI

Arabako Lurralde Historikoari dagokionez, Batzar Nagusiek edukiera handiko bideak finantzatzeko eta kudeatzeko eredu berri baten azterketa bultzatu zuten, erabiltzeagatik ordaintzeko sistema bat ezartzearen ondorioei buruzko ezagutza tekniko, ekonomiko eta sozial nahikoa izateko. Azterketa horretan, besteak beste, sistemaren ezaugarri teknikoak, tarifak, eragindako ibilgailuen bideak eta motak, aplikatu beharreko kobrantza sistema, beharrezko inbertsioak, ezarpen egutegia, hobarien araubidea eta Arabako Bideak-Vías de Álava SA —ARABAT— foru sozietate publikoak eredu berrian duen zeregina aztertu behar ziren.

Arabako Bideak-Vías de Álava SA sozietate anonimo gisa eratu zen 2003ko abenduaren 15ean. Sozietate horren xede nagusia da Vitoria-Gasteiz–Eibar AP-1 autobidea egin, zaindu, mantendu eta ustiatzea, bere kabuz edo hirugarren pertsonen bitartez, hain zuzen ere Arabako Lurralde Historikoko tartea. 2024. urtean, sozietatearen xedea zabaldu zen, Arabako Foru Aldundiak ezartzen dituen edukiera handiko bideen kudeaketaren alderdi batzuk bereganatzeko. Zabalkuntza haren ondorioz erronka eta egiteko berriei heldu die.

Ingurumari horretan gertatu den azterlanak egindako distantzian oinarritutako erabileragatik ordaintzeko eredua proposatzen du, ARABATek tarifen kobrantzaren kudeaketa bere gain hartuko duen kudeaketa sistema baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiak bideen kontserbazioari eta mantentzeari buruzko eginkizunak gordeko ditu. AP-68 autobideaz denaz bezainbatean, araubide berezia ezartzea aurreikusten da, ibilgailu arinei zein astunei aplikatzeko modukoa, kontuan harturik, gaur egun, ordaindu beharreko autobidea dela, eta indarrean dagoen emakida amaitu ondoren sistemaren jarraitutasuna bermatu behar dela.

VII

Erabiltzeagatik ordaintzeko sistema hainbat soluzio teknologikorekin bateragarria den ereduari jarraikiz konfiguratzen da, gelditu beharrik gabeko kobrantza sistema dinamikoak, free flow deitutakoak, eta, behar denean, beste ordainketa, identifikazio edo elkarreragingarritasun tresna batzuk ere aintzat hartuta. Helburua da igarotzeak identifikatzea, kanona behar bezala egoztea eta kobrantza eraginkortasunez kudeatzea, zirkulazioaren gaineko eragina minimizatuz eta sistemaren funtzionaltasuna bermatuz.

Sistema hori ezartzeko, prestazioaren funtsezko elementuak arautu behar dira: kanonaren izaera juridikoa, eremu objektiboa, loturiko ibilgailuak, sortzapena, ordainbideak, kudeaketa-arauak, ordainarazpena eta diru-bilketa, ez ordaintzea, arau hausteak, diru sarreren xedea, hobariak, murrizketak, salbuespenak eta sistemaren funtzionamendurako beharrezkoak diren datu pertsonalen tratamendua.

VIII

Foru arau honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko zenbait errepide eta tarte erabiltzeagatik ordaintzeko sistema ezartzea, bide azpiegitura jakin batzuk erabiltzeagatik eska daitekeen kanona sortuz.

Hauxe da foru arauaren egitura: hiru kapitulu, hemeretzi artikulu, bost xedapen gehigarri eta lau azken xedapen. I. kapituluan zenbat gairi buruzko xedapen orokorrak biltzen dira: arauaren xedea, kanonaren izaera juridikoa, aplikazio eremua, sortzapena, ordaindu behar

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

duten ibilgailuak, salbuespenak, tarteen araberako tratamendu espezifikoak eta ibilgailuaren erabiltzaileen eta titularren betebeharrak. II. kapituluan erabiltzeagatik ordaintzeko sistemaren araubidea ezartzen da, honako hauek zehaztuta: kanonaren zenbatekoa ezartzeko eta eguneratzeko printzipioak, hobariak, ordainbideak, kudeaketa, ordainarazpena eta bilketa, ordaintzen ez denerako eta errekarguen araubidea, eta sarreren xedea. III. kapituluan sisteman biltzen eta sortzen diren datu pertsonalen tratamendua arautzen da. Xedapen gehigarrietan honako hauek arautzen dira: 20/1990 Foru Araua aldatzea, AP-1 autobidean aplikatuko diren tarifak, AP-68 autobideari aplikatu beharreko araubide espezifikoa, Europar Batasunari egin beharreko jakinarazpenak eta lortutako diru-sarreren xedea. Azken xedapenetan honako hauek arautzen dira: eskumen titulua, erregelamenduz garatzeko gaikuntza, Europako araudiaren aplikazioa kargari dagokionez eta noiz sartuko den indarrean foru araua.

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Arauaren xedea

Foru arau honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko zenbait errepide (3. artikuluan aipatzen direnak) erabiltzeagatik ordaintzeko sistema ezartzea, bide azpiegitura horiek erabiltzeagatik eska daitekeen kanona sortuz, horien ustiapen eta kudeaketa araubidea gorabehera.

2. artikulua. Kanonaren izaera juridikoa

1. Foru arau honetan arautzen den kanona ondare prestazio publikoa da, zerga ez bestelakoa, bat etorriz Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoarekin.

2. Kanona erabiltzeagatik ordaintzeko sistema aplikatzen den errepideak, bideak edo tarteak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prestazioa da. Foru arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan arautzen da.

3. artikulua. Aplikazio eremua

1. Foru arau honetan arautzen den kanona aplikatuko den Arabako Lurralde Historiko edukiera handiko bideen zerrenda:

a) AP-68 autobidea. Bizkaiko Lurralde Historikoko mugaren (22,38 PK) eta Burgosko probintziako mugaren (77,60 PK) arteko tartea.

b) AP-1. Burgosko probintziako mugaren (Miranda de Ebro, 77,20 KP) eta A-1 errepideko lotunearen (Armiñón, 85,10 KP) arteko tartea.

c) A-1 autobia. Burgosko probintziako mugaren (Miranda de Ebro, 321,70 KP) eta Burgosko probintziako Trebiñu Konderriko hegoaldeko mugaren (329,45 KP) arteko tartea.

d) A-1 autobia. Burgosko probintziako Trebiñu Konderriko iparraldeko mugaren (336,15 KP) eta Nafarroako mugaren (391,69 KP) arteko tartea.

e) N-102 errepidea. A-1 autobidearen Ariñizko lotunearen (342,79 KP) eta Vitoria-Gasteizko Mariturriko bulebarreko biribilgunearen (347,74 KP) arteko tartea.

f) N-124 errepidea. A-1 autobidearen Zubi Berriko bidegurutzearen (24,54 KP) eta Zambranako saihesbidearen amaieraren (31,90 KP) arteko tartea.

g) N-240 errepidea. Gamarra Nagusiko semaforoaren (4,57 KP) eta galtzada bikoitzaren amaieraren (15,02 KP) arteko tartea.

h) N-622 errepidea. Vitoria-Gasteizko Zadorra etorbidearen gaineko zubiko sarbideen (3,97 KP) eta AP-68 autobidearen Altubeko lotunearen (23,32 KP) arteko tartea.

i) N-624 errepidea. A-3606 errepidearen bidegurutzearen (Forondako biribilgunea, 8,99 KP) eta Forondako aireportuko lotunearen (10,87 KP) arteko tartea.

2. Kanona ordaindu behar izateak ez ditu ezertan eragotziko foru arau honen eta berau garatzen duten xedapenen arabera ezartzen diren salbuespenak, hobariak, deskontuak edo murrizketak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4. artikulua. Kanonaren sortzapena

1. Ibilgailua errepidera, bidera, tartera, azpiegiturara, tarifapeko ibilbidera, lotunera edo erabiltzeagatik ordaintzeko sistemari lotutako kontrol puntura sartzen denean sortuko da kanona.

2. Kanona bide azpiegitura erabiltzean ordainduko da; nolanahi ere, kanona banaka, era metatuan edo aldizka kuantifikatu, likidatu, fakturatu edo kobratu ahal izango da, foru arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan ezartzen denari jarraikiz.

3. Sistemari lotutako igarotzea egiten denean sortuko da ordaintzeko betebeharra, aplikatzekoak diren salbuespenak, hobariak, deskontuak edo murrizketak eragotzi gabe.

5. artikulua. Ordaindu behar duten ibilgailuak

1. Kanona foru arau honen 3. artikuluan aipatzen diren azpiegiturak erabiltzen dituzten ibilgailuei aplikatuko zaie, foru arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan ezartzen diren kategoria, tarifa eta baldintzen arabera.

2. Oro har, kanona 3. artikuluan aipatzen diren errepideak, bideak edo tarteak erabiltzen dituzten ibilgailu astunei aplikatuko zaie. Nolanahi ere, foru arau honen hirugarren xedapen gehigarrian araubide berezia ezartzen da AP-68rako, eta baliteke inoiz kanona ibilgailu arinei ere aplikatzea, erregelamenduz arautzen diren kasuetan.

3. Arau honen ondorioetarako definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) Ibilgailu astuna: ibilgailu motorduna edo ibilgailu artikulatuen multzoa, zeinaren baimendutako gehieneko masa edo teknikoki onargarria den gehieneko masa 3,5 tonatik gorakoa baita. Hiru kategoria daude:

• 1. kategoria: baimendutako gehieneko masa edo teknikoki onargarria den gehieneko masa 3,5 tonatik gorakoa eta 12 tonatik beherakoa.

• 2. kategoria: baimendutako gehieneko masa edo teknikoki onargarria den gehieneko masa 12 tonakoa edo hortik gorakoa.

b) Ibilgailu arina: baimendutako gehieneko masa edo teknikoki onargarria den gehieneko masa 3,5 tonatik gorakoa ez den ibilgailua. Hauen artean daude turismoak, ibilgailu komertzial arinak, furgonetak, minibusak eta beste kategoria baliokide batzuk, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999/62/EE Zuzentarauarekin bat etorriz (bide azpiegiturak erabiltzeagatik ibilgailuei kargak aplikatzeari buruzkoa) eta foru arau hau garatzeko xedapenen arabera.

4. Ibilgailuak sailkatzeko, sistemak bolumenaren eta baimendutako gehieneko masaren edo teknikoki onargarria den kargako gehieneko masaren arteko korrelazioa ezarri ahal izango du irizpide bolumetrikoak baliatuz (luzera, zabalera eta altuera).

Ibilgailuaren bolumenaren eta gehieneko masaren arteko korrelazioa zuzena ez bada, ibilgailuaren dokumentazioan edo administrazio erregistro egokietan ageri den gehieneko masa hartuko da kontuan; halakoetan, tarifa berriro kalkulatuko da Arabako Bideak-Vías de Álava SAk korrelazioa oker dagoela egiaztatzen duenetik hamar egun baliodun igaro baino lehen.

Antzeko bolumena eduki arren baimendutako gehieneko masa edo teknikoki onargarria den gehieneko masa desberdina duten ibilgailuen kasuan, matrikularen eta kategoriaren aukerako erregistroa gaitu ahal izango dute erabiltzaileek.

Trafiko Burutza Nagusia erakunde autonomoaren Ibilgailuen Erregistroko datu baseak kontsultatzea ere ibilgailuak sailkatzeko baliozko bitartekoa izango da.

Nolanahi ere, erregelamendu bidez zehaztu ahal izango da zer ibilgailu kategoriak ordaindu beharko duten kanona, bai eta sailkapen irizpideak, egiaztatzeko arauak eta aplikatutako kategoria zuzentzeko edo berrikusteko sistemak ere, beti ere irizpide objektiboak, egiaztagarriak, gardenak eta diskriminazio gabeak aplikatuz.

6. artikulua. Salbuespenak

1. Ibilgailu hauek ez dute ordaindu beharko kanona ordaintzeko sistemari lotutako errepideak, bideak edo tarteak erabiltzeagatik:

a) Ertzaintzaren, gainerako segurtasun kidego eta indarren edo agintari judizialen ibilgailuek, kanona aplikatzen den errepide, bide edo tarteren batean zerbitzua eman behar dutenean.

b) Anbulantziek eta suteen aurkako zerbitzuetako ibilgailuek, kanona aplikatzen den errepide, bide edo tarteren batean zerbitzu publikoa emateko jarduerak edo misioak egiten dituztenean.

c) Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Bideak-Vías de Álava SA foru sozietate publikoaren ibilgailuek, kanona aplikatzen den azpiegiturak kontrolatu, kudeatu, ustiatu, kontserbatu, mantendu edo ikuskatzeko erabiltzen direnek.

d) Kanonari lotutako azpiegiturak kontserbatzeko, mantentzeko, ustiatzeko, kontrolatzeko edo laguntza teknikoa emateko kontratuen esleipena duten enpresen ibilgailuek, betiere zerbitzu horiek benetan emateko erabiltzen badira.

Salbuespen hori soil-soilik aplikatu ahal izango da salbuespena justifikatzen duen zerbitzu, zeregin edo jarduerarengatik egiten denean igarotzea. Bestela, ibilgailuak kanona ordaintzeko araubide orokorraren mende geratuko dira.

2. Halaber, AP-68ren Ziorraga - Altube tarteak dituen inguruabar bereziak kontuan hartuta (trafikoaren antolamenduari, bide-segurtasunari, bide-sarearen funtzionaltasunari eta eremuaren balio ekologiko handiari lotutakoak), Ziorraga eta Altube bitartean bi noranzkoetan I. eta II. kategoriako ibilgailu astunek egindako ibilbideei dagokien kanonaren ordainketan salbuespen bat aplikatuko da.

Salbuespen hori bakar-bakarrik aplikatuko da ibilbidearen jatorria eta helburua tarte hori mugatzen duten puntuekin bat datorrenean.

3. Erregelamendu bidez ezarri ahal izango dira artikulu honetan arautzen diren salbuespenak aplikatzeko bete beharreko egiaztapen, erregistro, kontrol eta ziurtatze baldintzak.

7. artikulua. Berariazko tratamenduak tarteen arabera

1. Arabako Foru Aldundiak kanona osorik edo partez ez aplikatzea erabaki ahal izango du bide segurtasunarekin, zirkulazioaren antolamenduarekin, sarearen funtzionaltasunarekin edo zirkulazioak hain egokiak ez diren bide alternatiboetara lekualdatzea saihestearekin zerikusia duten inguruabar bereziak gertatzen diren tarte edo ibilbideetan.

2. Artikulu honen babesean hartzen diren neurriak aurreko apartatuan adierazitako helburuak lortzera bideratu beharko dira, eta helburu horiek betetzeko behar-beharrezkoa den neurrian aplikatu beharko dira.

3. Foru arau honen 5. artikuluan jasotako ibilgailu guztiei aplikatuko zaizkie.

4. Kanona partez ez aplikatzea erabakitzen denean, honako irizpide hauek bete beharko dira:

— partez ez aplikatzea, oro har, eraginpeko tarte edo ibilbidean aplikatu beharreko kanonaren zenbatekoa ehunekotan murriztuz artikulatu beharko da;

— partez ez aplikatzeak ezin izango du kanonaren salbuespen osoa erdietsi, eta, nolanahi ere, tarteari edo ibilbideari dagokion kanonaren ehuneko 25eko gutxieneko eskakizuna mantendu beharko da;

— zati bat ez aplikatzeko gehieneko mugak ezin izango du gainditu eraginpeko bide zatiari edo ibilbideari dagokion kanonaren ehuneko 75; hala ere, salbuespen gisa, ehuneko handiagoa adostu ahal izango da, beharrezkoa bada zirkulazioa edukiera edo segurtasun txikiagoko ibilbide alternatiboetara nabarmen lekualdatzea saihesteko eta betiere akordioan berariaz arrazoitzen bada;

— zati bat ez aplikatzearen ehunekoa ezartzeko, irizpide objektibo eta egiaztagarrietan oinarritu beharko da, eta, besteak beste, honako hauei erantzun ahal izango die:

1. bide tartean kanona aplikatzeak bide segurtasunerako dakarren arriskua, honako adierazle hauen arabera neurtuta: istripu tasa, ezaugarri geometrikoak, ikuspen mugak, baldintza meteorologiko errepikatuak edo obrek eragindako kalteak;

2. sarearen barruko tartearen funtzionaltasuna eta industrialdeetarako, plataforma logistikoetarako, instalazio estrategikoetarako edo herriguneetarako ezinbesteko sarbide gisa duen zeregina, alternatiba baliokiderik ez dagoenean;

3. sare alternatiboaren edukiera eta desbideratutako zirkulazioa xurgatzeko gaitasuna, kontuan hartuta zein den ibilgailuen tipologia, zer zeharbide dauden, zer nolakoak diren hiri inguruneak edo zein diren zona sentikorrak eta zer murrizketa dagoen.

4. eguneko batez besteko intentsitatea, zirkulazioaren osaera ibilgailu kategorien arabera eta urtaroen edo ordutegien gorabeherak, aplikazio partzialik ez egiteko neurria aldi jakin batzuetara mugatzen denean.

Aplikazio partziala ez egitea erabakitzeko hartzen den ebazpenak eraginpeko tartea edo ibilbidea zehaztu beharko du mugaketa zehatzarekin, bai eta, hala badagokio, ordu tarteak, egunak edo aplikazio aldiak ere. Aldi baterako modulazioak ezarri ahal izango dira, pilaketa murrizteko edo zirkulazioa antolatzeko, baldin eta ateratzen den egitura gardena eta erabiltzaile guztientzat berdintasun baldintzetan irisgarria bada.

Kanona partez ez aplikatzea bateraezina izango da edozein hobari edo deskontu motarekin.

5. Nolanahi ere, neurria onesten duen foru dekretuak haren eremu objektiboa eta subjektiboa, iraupena eta aplikazio baldintzak mugatu beharko ditu, eta berariaz justifikatu beharko du haren beharra eta proportzionaltasuna.

8. artikulua. Ibilgailuen erabiltzaileen eta titularren betebeharrak

1. Kanona ordaindu behar duten ibilgailuak erabiliz, foru arau honen aplikazio eremuko bide, tarte edo ibilbideetan zirkulatzen duten erabiltzaileek zenbateko egokia ordaindu beharko dute, foru arau honetan eta berau garatzeko xedapenetan araututako baldintzetan.

2. Erabiltzaileek behar bezala erabili beharko dituzte onartzen diren ordainbideak, eguneratuta eduki beharko dituzte kobrantza kudeatzeko behar diren datuak, eta, behar denean, aintza hartu beharko dituzte Arabako Foru Aldundiak edo Arabako Bideak-Vías de Álava SAk erabileraz, seinaleez eta ordainketaz ezarritako jarraibideak.

3. Aplikatzen den kobrantza sistemaren oinarrian bitarteko elektronikoak, telematikoak edo igarotzeak automatikoki identifikatzeko bitartekoak badaude, ibilgailuen titularrek edo erabiltzaileek horiek eraginkortasunarekin erabiltzeko behar diren bitarteko teknikoak eduki beharko dituzte edo, bestela, ibilgailuaren matrikula baliozko ordainbide bati lotzeko beharrezkoa den informazioa eman beharko dute.

4. Ibilgailuen titularrek edo erabiltzaileek, beharrezkoa denean, ibilgailua behar bezala identifikatzeko, ibilgailuaren kategoria zehazteko, tarifa aplikatzeko eta, behar denean, aplika daitezkeen hobariak, deskontuak, murrizketak edo salbuespenak egiaztatzeko behar den informazioa eman beharko dute.

5. Artikulu honetan arautzen diren betebeharrak betetzen ez badira, kanona eta bidezko kudeaketa errekargua eskatuko dira, eta foru arau honetan eta aplikatu beharreko errepideen araudian ordaintzen ez duten pertsonei buruz xedatzen diren ondorioak sortuko dira, 14. artikuluan ezartzen denari jarraikiz.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

II. KAPITULUA
SISTEMAREN TARIFEN ERREGULAZIOA

9. artikulua. Kanonaren zenbatekoa zehazteko printzipio orokorrak

1. Kanonaren zenbatekoa Europar Batasunaren araudi aplikagarriaren arabera finkatu eta eguneratuko da, eta, bereziki, honako printzipio hauen arabera: kostuak berreskuratzea, objektibotasuna, gardentasuna, proportzionaltasuna, finantza nahikotasuna, tratu berdintasuna eta zuzeneko nahiz zeharkako diskriminaziorik eza.

2. Kanonaren zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

a) Egindako distantzia edo benetan erabilitako tartea.

b) Ibilgailuaren kategoria.

c) Azpiegitura eraikitzeko, kontserbatzeko, mantentzeko, ustiatzeko, kudeatzeko eta garatzeko kostuak.

d) Kobrantza sistemaren ezarpen, eragiketa, mantentze eta egokitzapen teknologikoaren kostuak.

e) Atmosferaren kutsadurak, kutsadura akustikoak, CO_2 isuriek edo Europar Batasuneko araudiak onartutako beste kontzeptu batzuek eragindako kanpoko kostuak.

f) Foru arau honen eta berau garatzen duten xedapenen arabera aplikagarriak diren hobariak, deskontuak, murrizketak edo salbuespenak.

3. Kontuan hartutako kostuak erabiltzeagatik ordaintzeko sistemak eragindako errepide, bide, tarte, ibilbide edo sareei eta kanonari lotutako ibilgailu kategoriei dagozkie. Kanona hainbat ibilgailu kategoriatan aplikatzen denean, kostuen banaketa irizpide objektibo, garden eta proportzionatuen arabera egin beharko da.

10. artikulua. Kanonaren hasierako zenbatekoa eta eguneratzeak

1. Kanonaren hasierako zenbatekoa eta haren eguneratzeak Foru Gobernuaren Kontseiluaren foru dekretuen bidez onetsiko dira, foru arau honetan ezarritako printzipio eta irizpideekin bat etorriz eta, behar denean, Europar Batasuneko araudi aplikagarrian eskatzen diren izapideak, komunikazioak edo txostenak egin ondoren.

2. Kanonaren hasierako zenbatekoa edo kanonaren eguneratzeak onesten dituen foru dekretuak, gutxienez, honako hauek adierazi beharko ditu: eragindako bideak, bide tarteak edo ibilbideak, ordaindu beharreko ibilgailu kategoriak, kontuan hartutako kostuak eta distantziak, aplikatu beharreko tarifa osagaiak eta, behar denean, hobariak, deskontuak, murrizketak edo salbuespenak.

3. Arabako Foru Aldundiak Arabako Batzar Nagusiei jakinaraziko die artikulu hau aplikatuz zenbatekoak finkatu eta eguneratzeko hartzen dituen foru dekretuen edukia.

11. artikulua. Hobariak

1. Foru Gobernu Kontseiluak, foru dekretu bidez, hobariak ezarri ahalko ditu foru arau honetan araututako kanonaren zenbatekoaren gainean. Hobari horiek, artikulu honetan aurreikusitakoaren arabera, zenbait errepide, bide, tarte, tarifa ibilbide, ibilgailu kategoria edo erabilera, zirkulazio edo igarotze kasu espezifikori buruzkoak izan ahalko dira, baldin eta bide sistemaren funtzionamendu zuzenari, ingurumen helburuak edo mugikortasun jasangarriko helburuak lortzeari edo bideen jabari publikoaren ustiapena eta erabilera hobeto kudeatzeari lotutako interes orokorreko helburu bati erantzuten badiote, eta gainerako antolamenduarekin koherenteak badira.

2. Hobariak objektibotasunaren, gardentasunaren, proportzionaltasunaren, tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera eratuko dira, eta koherenteak izan beharko dute Europar Batasuneko araudi aplikagarriarekin; bereziki, irizpide orokorretan eta egiaztagarrietan oinarritu beharko da haien definizioa, lortu nahi den interes orokorraren helburuagatik eta hobaridun kasuaren izaeragatik justifikatu gabeko tratu desberdintasunak saihestuz.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

3. Hobariak arautzen dituen foru dekretuak argi eta garbi identifikatuko ditu, gutxienez, honako alderdi hauek: hobariaren eremu objektiboa; onuradunak edo eraginpeko subjektuen kategoriak; hobaria zehazteko ehunekoa edo araua, artikulu honetan ezarritako mugen barruan; indarraldia; aitortzeko, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta, hala badagokio, itzultzeko edo erregularizatzeko prozedura, eta prozedurako egintzak argitaratzeko modua, hala badagokio.

Era berean, honako muga material hauek errespetatu beharko ditu beti:

a) Kuotaren edo kanonaren zenbatekoaren gainean aplika daitekeen gehieneko hobari ehunekoa ehuneko 90 izango da.

b) Hobaria aplika daitekeen kanonaren oinarriaren edo zenbatekoaren gainean soilik aplikatuko da hobaria, eta, hala badagokio, salbuetsita geratuko dira errekarguak, interesak, zehapenak edo hobaria jaso ezin duten beste kontzeptu batzuk.

c) Hobaria aitortuko da soilik foru dekretuak artikulu honetan gaitutako kategorien barruan berariaz mugatutako egitateei, bide tarteei, ibilbideei, ibilgailu kategoriei edo kasuei dagokienez, eta ezin izango da analogiaz luzatu.

d) Oro har, hobariak ofizioz aplikatuko dira. Hala ere, behar bezala justifikatutako kasu jakin batzuetan, foru dekretuak hobari batzuk erregutuak izatea eskatu ahal izango du, eta eskaera eta beharrezkotzat jotzen den beste dokumentazio mota bat eskatu ahal izango du, erregelamendu bidez xedatzen diren baldintzetan, artikulu honetan ezarritako betekizunak eta mugak betez.

e) Hobaria aurrekontu erabilgarritasunaren baldintzapean geratu ahal izango da haren konfigurazioak eta finantzaketak hala eskatzen badu; kasu horretan, foru dekretuak modu objektibo eta egiaztagarrian ezarriko ditu aplika daitezkeen faktore zuzentzaileak edo gutxitze irizpideak.

4. Foru dekretu horrek, hala badagokio, abusu egoerak saihesteko arauak ezarriko ditu, honako hauek barne: hobariaren erabilera mugak, aldizkakotasuna, iraungipena, eragiketa edo titulu gaitzaileen kopurua, edo karga ekonomikoaren murrizketa benetako aldiaren eta ustezko material hobaridunaren gainean proiektatzen dela ziurtatzeko behar-beharrezkoak diren beste baldintza operatibo batzuk.

5. Hobariak baldintza teknikoei edo ingurumenekoei lotzen zaizkienean (ibilgailuen sailkapena edo antzeko beste irizpide batzuk barne), foru dekretuak sailkapen, metodologia edo estandar objektibo eta eguneragarrietara joko du, halako moldez non ez balizko eguneratze teknikoak ez baititu aldatuko foru arau honetan finkatutako funtsezko mugak.

12. artikulua. Ordainbideak

1. Kanona ordainbide hauek erabiliz bakarrik ordaindu ahal izango da:

a) Ibilgailuaren barruko TAG gailua, edo ordainketa elektronikoa egiteko gaiturik dagoen beste gailu baliokideren bat.

b) Erregistro telematikoa Arabako Bideak-Vías de Álava SA enpresaren webgunearen bidez edo, bestela, garatzen den beste sistema telematiko baten bidez, bankuko txartela ibilgailuaren matrikula zenbakiari lotuta.

2. Aurreko apartatuan arautzen diren ordainbideez gainera, beste ordainbide osagarri batzuk ere erabili ahalko dira, hala nola banku txartela edo bankuko edo finantzako bitarteko elektroniko baliokidea erabiliz ordaintzea, aurrez aurreko ordainketa egitea edo eskudiruz ordaintzea, hain zuzen ere errepideko sarreran edo irteeran, edo kobrantza gunean aurreko ordainbideak erabiltzerik ez badago konfigurazio teknikoagatik, gaitasun operatiboagatik eta ustiapen baldintzengatik.

3. Ordainbide osagarriak zenbait ibilgailu kategoriatarako soilik edo sarrera-irteera batzuetan soilik ezarri ahal izango dira, eta beren erabilerak ez die kalterik egin behar trafikoaren arintasunari, bide segurtasunari ez sistemaren elkarreragingarritasunari.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

13. artikulua. Kanonaren kudeaketa, ordainarazpena eta bilketa

1. Kanonaren kudeaketa, ordainarazpena eta bilketa Arabako Bideak-Vías de Álava SAren egitekoak izango dira, kanona kudeatzen duen erakundea delako. Egiteko horiek nola bete Arabako Foru Aldundiarekin adostuko du hitzarmen batean.

2. Kanona kudeatzen duen erakundeak beharrezko jarduketa material eta operatiboak egin ahal izango ditu igarotzeak identifikatzeko, aplikatu beharreko tarifak eta hobariak zehazteko, fakturak egiteko, kobrantzak kudeatzeko, gorabeherak izapidetzeko, ordainbideak egiaztatzeko eta kanona ordaintzen ez deneko kasuak kudeatzeko.

3. Arabako Bideak-Vías de Álava SAk hirugarrenak kontratatu ahal izango ditu eta haiekin adostu kanonaren kudeaketa, ordainarazpena eta bilketa, bai eta osorik edo zati bat kobratzeko sistemaren kudeaketa operatiboa ere, aplikatu beharreko kontratazio publikoko araudiaren arabera.

14. artikulua. Kanona ez ordaintzea eta errekarguak

1. Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 60.2 artikuluan ezartzen denaren arabera, arau hauste arina da erabiltzeagatik ordaintzeko sistema aplikatzen den bide azpiegitura bat erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanona ez ordaintzea. Arau hauste arinen zehapenak foru arau honetan, Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauan eta hori garatzen duten xedapenetan ezartzen denari jarraikiz ezarriko dira.

2. Kanona ez ordaintzearen erantzukizuna ibilgailuaren titularra den pertsona fisikoak edo juridikoak edukiko du, edo ohiko gidariak, baldin eta epe luzeko errentamendua Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan ageri bada.

3. Kanona ez bada ordaintzen bide azpiegitura erabiltzen den unean, Arabako Bideak – Vías de Álava SAk kobratzeko izapideak egingo ditu, kudeaketa errekargua gehituta. Errekargu hori zor den kanonaren ehuneko hogei izango da.

4. Igarotzea gertatzen denetik bi hilabete igarota zorra ordaindu ez bada, Arabako Bideak-Vías de Álava SAk bidezko salaketa bidaliko dio Arabako Foru Aldundiari, zehapen espedientea egin dezan eta premiamendu prozeduraren bidez eska dezan ordaintzeke dagoen zorra, ordaindu gabeko kudeaketa errekargua gehituta.

5. Igarotzea, ordainketa ez dela egin edo beste edozein inguruabar garrantzitsu egiaztatzeko, azpiegituran instalatutako sistema edo bitarteko teknikoak, mekanikoak, elektronikoak edo irudi erreprodukziokoak erabili ahal izango dira, ibilgailua behar bezala identifikatzeko. Bitarteko horiek froga nahikoa izango dira bidezko prozeduran.

6. Arabako Bideak-Vías de Álava SAk akordioak eta hitzarmenak sinatu ahal izango ditu hirugarrenekin ordaindu gabeko kopuruak kudeatzeko.

15. artikulua. Hartutako diru sarreren helburua

1. Kanonaren ordainarazpenarekin biltzen diren diru sarrerak erabiltzeagatik ordaintzeko sistema aplikatzen den bide, tarte edo azpiegituretan erabiliko dira, hain zuzen ere ohiko eta ezohiko kontserbazio kostuak, ustiapenekoak, mantentzekoak, kobrantza sistemaren eragiketakoak, erregulazio berrietara edo teknologia berrietara egokitzekoak ordaintzeko, eta bide azpiegiturak hobetzeko proiektuak egiteko.

2. Kanona aplikatzen den azpiegituren beharrak beteta, gainerako diru sarrerak, egonez gero, foru sareko bideak kontserbatzeko, ustiatzeko, hobetzeko, modernizatzeko edo garatzeko erabiliko dira, bai eta ingurumena babesteko edo mugikortasun jasangarria sustatzeko neurriak ezartzeko eta haien helburuak lortzeko ere, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

III. KAPITULUA
DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

16. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua

1. Foru arau honen aplikazio eremuaren barruko errepide, bide eta tarteetan araututako erabiltzeagatik ordaintzeko sistema kobrantza kudeatzeko kanona ordaindu behar duten ibilgailuen titulartasunari buruzko datu pertsonalen tratamendua baliatuz kudeatuko da.

2. Tratamendu horren helburua da sistemari atxikitako bide azpiegitura erabiltzeari dagokion kanona ordaindu behar duten ibilgailuak hautatu eta identifikatzea, eta, zehazki, kanona kobratzeko, fakturak egiteko, ez ordaintzeak kudeatzeko eta, hala badagokio, arau hausleen bidezko ondorioak kudeatzeko prozesuak egin ahal izatea; egindako kudeaketarekiko desadostasun, bat ez etortze edo akatsen ziozko erreklamazioak egiaztatzea; eta sistemari atxikitako azpiegiturek erabiltzen dituzten ordaindu beharrik gabeko ibilgailuak sistematik kanpo uztea.

3. Bildutako datu pertsonalak ez dira tratatuko foru arau honetan araututakoez bestelako helburuetarako. Azpiegituraren erabilerari edo zerbitzuaren kalitateari buruzko estatistikak egiteko, ezabatu egingo da aurreko ataletan identifikatutako helburuetarako bildutako edozein informazio pertsonal.

4. Arabako Foru Aldundian bide azpiegituren arloko eskumena duen saila izango da artikulu honetan deskribatu diren tratamenduen arduraduna.

17. artikulua. Bildutako datu pertsonalak

1. Aurreko artikuluan deskribatutako helburuak lortzeko, honako datu pertsonal hauek jaso ahal izango dira: arkuak, kontrol guneak edo sistemaren kobrantza guneak zeharkatzen dituen ibilgailuaren matrikularen irudia; lotutako ordainbidea; zirkulazioari lotutako data eta ordua; ibilgailuaren titularraren identifikazioa; erabiltzeagatik ordaintzeko sistemako alta edo erregistroa; eta informazioaren titularrek eskatzen dituzten fakturak igortzeko beharrezko datuak.

2. Era berean, datu pertsonala ez den informazio gehigarria eskatu ahalko da, hala nola ibilgailuaren matrikulazio herrialdeari, ibilgailuaren markari eta modeloari, kategoriari eta fitxa teknikoari buruzkoa.

3. Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei komunikatuko, legez eskatzeko modukoa den betebehar bat betetzeko edo zerbitzuari euskarria emateko beharrezkoa denean izan ezik.

18. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua

1. Ordaintzera behartuta ez dauden ibilgailuei buruzko datuak bide azpiegitura erabiltzearen kanona ordaintzeko betebeharra baztertzeko behar-beharrezkoa den denboran bakarrik tratatuko dira.

2. Banku txartela edo matrikulari lotutako ordainbidea erabili ahal izango da erabiltzeagatik ordaintzeko sisteman kobratzeko, baldin eta ibilgailuak beste ordainbiderik lotuta ez badu igarotzen den unean. Ordainbide hori igarotzea hasi aurreko edo osteko lau orduetan erabili ahal izango da, foru arau honek ezartzen duenaren arabera.

3. Biltzen diren datuak kanona kobratzeko behar den denboran baino ez dira gordeko, eta, prebentzioz, urtebetez ordaindu beharra sortzen denetik, aurkezten diren erreklamazioei erantzuteko. Aldi hori igarotakoan datuak blokeatu egingo dira legezko ekintza administratibo edo judizialen preskripzio epealdian.

19. artikulua. Zilegitasun titulua

1. Foru arau hau aplikatuz egiten den jardueraren ondorioz biltzen eta sortzen diren datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa edo hura gaitzen duen zilegitasun titulua da Arabako Foru Aldundiari, datu pertsonal horien tratamenduaren arduradun den aldetik, emandako botere publikoak egikaritzea eta interes publikoko misio bat betetzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikuluan xedatzen denari jarraikiz (erregelamendu hori pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez).

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA
Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko
ekainaren 25eko 20/1990 Foru Araua aldatzea

Beste letra bat, d) letra, gehitzen zaio Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 60. artikuluaren 2. apartatuari; hona testua:

"d) Kasuan kasuko foru araudian arautzen den erabiltzeagatik ordaintzeko sistema aplikatzen den bide azpiegiturak erabiltzeagatik kanona eta, behar denean, bidezko kudeaketa errekargua ez ordaintzea, araudi horretan ezartzen den bezala eta bertan finkatzen diren epealdien barruan".

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA
AP-1 autobideko Vitoria-Gasteiz-Eibar tarteko tarifak

Foru arau honen 3. artikuluan aipatzen den AP-1 autobideko tarteko kanona gorabehera, Foru Gobernu Kontseiluak foru dekretu baten bidez onetsi eta eguneratu ahal izango ditu AP-1 autobideko Vitoria-Gasteiz–Eibar tarteko tarifak.

Tarifa horiek, bereiz edo banandurik, foru arau honetan arautzen den kanonaren tarifak onartzen edo eguneratzen diren tresna edo dokumentu berean zehaztu ahalko dira, eta horrek ez ditu aldatuko AP-1 autobidearen berezko araubidea eta izaera juridikoa.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA
AP-68 autobidearen araubide berezia

AP-68 autobidea erabiltzen duten ibilgailu arinek zein astunek ordaindu beharko dute kanona. Gainerako bideetan, salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunek soilik ordaindu beharko dute kanona.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA
Europar Batasunari jakinarazpenak egitea

1. Foru arau honen esparruan bidesari araubide berri bat edo funtsean aldatu bat aplikatu aurretik, 1999/62/EE Zuzentarauan eta aplikatzekoak diren Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenetan jasotako Europako Batzordeari informazioa emateko eta jakinarazteko betebeharrak bete beharko dira.

2. Bidesari araubidean azpiegituragatiko tasak sartzen badira, 1999/62/EE Zuzentarauko 7 nonies artikuluan eskatzen den informazioa araua aplikatu baino sei hilabete lehenago eman beharko da, gutxienez. Kanpo kostuengatik edo pilaketagatik tasak ezartzen badira, artikulu horretan eta zuzentarauaren kasuan kasuko eranskinetan jasotako komunikazioak eta jakinarazpenak egin beharko dira, hura aplikatu aurretik.

3. Arabako Foru Aldundiak kontuan hartuko ditu Europako Batzordeak egiten dituen oharrak 1999/62/EE Zuzentarauko 7 nonies artikuluan jasotako epean.

4. Arabako Foru Aldundiak komunikazio eta jakinarazpen horiek egiteko behar den dokumentazioa eta informazioa prestatu eta emango dizkio administrazio eskudunari, horretarako ezarritako bideak erabiliz, eta izapideak egin bitartean egin daitezkeen informazio gehigarriaren eskaerei erantzuten lagunduko du.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA
Lortutako diru-sarreren xedea

Kanonaren bidez lortutako diru-sarreren ehuneko batek sistemaren iraunkortasunari eta ingurumen-inpaktu txikiagoa lortzeari laguntzen dioten garraiobideak eta azpiegiturak ordaindu beharko ditu.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA
Eskumen titulua

Foru arau hau Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.34 artikuluan, Autonomia erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foruzko jardute erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoaren babesean eman da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA
Erregelamendu garapena

Foru arau honetan berariaz egiten diren gaikuntzak ezertan eragotzi gabe, Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematen zaio hura garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA
Europako araudiaren aplikazioa kargari dagokionez

1. Honako foru-arau honen bitartez egokitu egiten da, Arabako Lurralde Historikoaren eskumenen esparruan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko ekainaren 17ko 1999/62/EE Zuzentaraua, bide-azpiegiturak erabiltzeagatik ibilgailuei kargak aplikatzeari buruzkoa, egun indarrean duen idazketan.

2. Aipatutako zuzentarauaren aurreikuspenak beharrezkoak diren garapeneko foru-dekretuen bidez aplikatuko dira, honako hauen arabera: bideen ezaugarriak, eragindako ibilgailuen tarteak eta kategoriak, beharrezko informazioaren eskuragarritasuna eta kobratze-sistemaren aukera teknikoak. Horren helburua da Europako Batasunaren Zuzenbidetik eratorritako betebeharrak benetan betetzen direla ziurtatzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA
Indarrean sartzea

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 28a

Lehendakaria
IRMA BASTERRA UGARRIZA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.30 06:42:58 Z